

PROGRAMAZIO LABURTUA

IKASTETXEAREN IZENA	BENTADES IKASTETXEA					KODEA: 014777	2022 - 2023
ARLOA	BALIO ETIKOAK					DATA	
						2022-09-08	
MAILA	DBH 1	X	DBH 2	DBH 3	DBH 4	DBHO 1	DBHO 2

1	ARLOAREN GUTXIENGO HELBURUAK GAITASUN MODUAN ADIERAZITA
	<ol style="list-style-type: none"> 1. Norberaren nortasunari eta norberaren bizi-proiektuari buruzko gai etikoei dagoekien guztia miatzea eta ikertzea, horri buruz hausnartzeko jarrera sortuz, autoezagutza sustatzeko eta planteamendu eta iritzi moralak modu autonomoan eta arrazoituan eraikitzeke. 2. Ingurune analogiko eta digitaletan jardutea eta elkarreragitea, errespetuzko elkarrizketa baterako beharrezkoak diren arau eta balioekin bat etorriz, bizikidetzak baketsua, errespetuzkoa, demokratikoa eta guztion onerako modu aktiboan konprometitu sustatzeko duten garrantziaren aitortpen oinarritutik abiatuz, arau eta balio zibiko eta etikoei buruz hausnartzeko, bizitza omunitarioa arautzeko eta hainbat testuingurutan modu eraginkorrean eta justifikatuz aplikatzeko. 3. Giza jardueren izaera interkonektatua, elkarren mendekoa eta ekomendekoa ulertzea, arazo ekosozial garrantzitsuak identifikatuz eta aztertuz, bizimodu jasangarriak lortzeko etikoki konprometitutako ohiturak eta jarrerak sustatzeko. 4. Norberaren eta ingurunearen estimu egokia erakustea, norberaren eta besteen sentimenduak eta emozioak aitortuz eta baloratu, besteekiko eta naturarekiko jarrera enpatikoa, asertiboa, erresilientea eta arduratsua lortzeko.

2	EDUKIEN DENBORALIZAZIOA		
	1. ebaluazioa	2. ebaluazioa	3. ebaluazioa
	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-berdintasuna gaur egun: emakumeak eta surfa eta ohiturak aldatzen: Eskoriatzako kasua. - Emakumeen diskriminazioa historian zehar: Nokaren galera Oñatin. 	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-berdintasuna gaur egun: emakumeak bertsoen plazan, matxismoa ezkutan? adibide batzuk. - Emakumeen diskriminazioa historian zehar: Ezkontzean lantegitik bota. 	<ul style="list-style-type: none"> - Genero-berdintasuna: idazlea emakumea denean. - Emakumeen diskriminazioa historian zehar: emakumeen soldaduska frankismoan. - LGTBIQ+ kolektiboa.

3	IRAKAS PROZESUAN ERABILTZEN DEN METODOLOGIA
	<p>Irakasleak landu beharreko kompetentzien eta edukien inguruko azalpenak emango ditu, teorikoak eta praktikoak. Hala nola, dagozkien jarduerak eta prozedurak ere azalduko ditu. Ikasgelan landutako eduki teorikoak aldizkako lan edo frogen bidez ebaluatuko dira. Horretaz aparte, garrantzia berezia emango zaie proiektu eta lan praktikoei, bertan ikusiko baita ikaslea klasean landutako eduki teorikoak eta gaitasunak aplikatzeko gai dela. Egunerokotasunean, ahoz edota idatziz eta bakarka zein taldeka izango dira jarduerak. Talde jardueretan ikasleek ikasteko kooperatu metodologia jarraituko dute.</p>

4	BALIABIDEAK
	<ul style="list-style-type: none"> • Classroom-a. • Internet. • Ikus-entzunezko bideo laburrak, dokumentalak edota pelikulak. • Ikasle bakoitzak koaderno bat behar izango du.

5	EBALUAZIO-IRIZPIDEAK, ADIERAZLEAK, EBALUATZEKO TEKNIKAK ETA TRESNAK, KALIFIKAZIO IRIZPIDEAK
	<ul style="list-style-type: none"> - Eduki teorikoak, frogetan zuzenak eta gramatikalki ondo adierazita egotea. - Informazio iturri ezberdinak erabiltzen ikasten hastea modu zuzen eta autonomoan. - Landutako eduki teorikoak sintetizatzen, aztertzen eta partekatzen jakiten hastea. - Sortze-lana egiten ikasten hastea, norberaren ideiak eta ikasitakoa uztartuz hausnarketa pertsonalen bitartez. - Gai baten inguruan argudiatutako iritzia ematen ikasten hastea eta, aldi berean, besteen iritzia begirunez entzuten eta ulertzen ikasten hastea. <p>Kalifikazio irizpideak:</p> <p>Ebaluaketa jarraituko sisteman, helburuen lorpena irakasle-ikastetxearen prozesuaren amaieran neurtzen da. Halere, ikasturtearen hiru ebaluaketetan zehar egindako jarduerak eta frogek, aukera emango diote irakasleari helburu horien lorpenaren maila neurtzeko eta dagokion zenbakizko balioa atsekitzeko.</p> <p>Horretarako, hurrengo kalifikazio irizpideak hartuko dira kontuan:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Froga objektiboaren notak ebaluaketarako notaren %70 izango da. • Klaseko jarrerak (irakaslearekiko errespetua, ikaslearen arteko jarrera, parte hartzea...) %20 balioko du. • Euskararen erabilera %10 balioko du.



Ebaluaketako batzbestekoa egin ahal izateko, **3,5** baino gehiagoko emaitza izan beharko dute azterketetan. Edozein kasutan, froga idatzi guztiak suspendituz gero, ezingo da ebaluaketa gainditu.

Ebaluaketa bat suspenditzerakoan, ebaluaketa horretako eduki guztiak berreskuratu beharko ditu ikasleak.

Edonork edozein proba idatzian kopiatzen badu, 0 nota jasoko du proba edo jarduera horretan.

Ikasturtearen nota finala hiru ebaluazioen - bakoitza bi hamartarrekin ateratakoa, ez boletinean agerturiko nota borobila - batzbesteko aritemikoa da. Boletineko nota borobiltzeko "*unitatetik gertu*" izango da (adibidez; 4,45 → 4; 9,55 → 10; 6,50 → 7). Nota finala borobiltzeko ikasleak ikasturte osoan aurkeztu duen **jarrera eta hobekuntza jarraitua** kontuan hartuko dira.

6

BERRESKURAPEN ETA INDARTZE-SISTEMA

Geografia eta Historia ikasgaia jarraitua denez, ez da berreskurapenik egongo. Hortaz, lehenengo edo bigarren ebaluaketak gainditu gabe izanez gero, berau berreskuratzeko aukera izango dute ondorengo ebaluazioetako edozein gaindituta. Irakasleak edozein momentutan proba zehatzak bidal ditzake etengabeko ebaluazioan beti sartzen ez diren alderdi zehatzak berreskuratzeko.

Etengabeko ebaluazioa denez, hirugarren hiru hileko kalifikazioa izango da ikasturteko nota.

Gainditu gabeko gaien jarraipena

Ekainean ikasgaia gainditu ez duen ikasleei, hurrengo ikasturteko edozein ebaluazio gaindituta aurreko urtekoa gaindituztat emango zaie.

Behar izatekotan, aurreko ikasturteko gaia gainditu gabe duten ikasleek, urtean zehar ariketa edota jarduera zerrenda bereziak egin eta irakasleari eman beharko dizkiote.